



LGBT askapenaren eguna aldarrikatuko du E28 Bizkaiko koordinadorak

URIOLA :: 26/06/2024

Plataforma sexudisidenteak manifestaziora dei egin du hilak 28an.

Bizkaiko E28 koordinadorak LGBT askapenaren egunean manifestaziora dei egin du Bilbon. Mobilizazioa La Casillatik irtengo da 19:30etan eta LGBT kolektiboaren aldeko aldarriekin batera, "erresistentzia palestinarraren alde eta pinkwashing sionistaren aurka" egingo da manifestazioan, haren aurkako "harrotasun antikapitalista" aldarrikatuta. Aurtengo mobilizazioaren afixan ere palestinar bandera ageri da LGBT+ kolektiboarenarekin batera; antolatzaileen hitzetan "genozidioan ez dago harrotasunik!".

Ekainaren 28an egingo den mobilizazioaren albisteak LGBT kolektiboaren aldeko borrokaren inguruko eztabaida handiko garaian dator, izan ere, E28 koordinadorak eta Bilbo eta Bizkaiko beste hainbat plataformak Bilboko Udalaren Bilbao Bizkaia HARRO kanpaina gogor kritikatu dute, erakundearen pinkwashing-a egiteko kanpaina egiteko haien borroka instrumentalizatzea egotzita.

<https://eh.lahaine.org/lgbt-askapenaren-eguna-aldarrikatuko-du>